EUSKALERRIKO BERRIAK

AITZ-BURUTXO

JAYOTZA

Aur eder bat izan dute Etxezarkortako Larrañaga'tar Ignazio'k eta bere emazte prestuak. Batayatzen Miren Laurentze euskel izen ederra ipiñi diote. Bere aita-amai eta berezi bere aitona Tomas, Eusko Nekazarietako ziñegotzi jatorrari nere zorion agurra.

IGARO DAN ASTELENEZ ANTIGUAN

Asko izan ziran goizian goizetik juan ziranak Antigua'ko baseliz entzutetsu ortara, bertako jayak zirala-ta, biurturik illunabarrian euzko erromeri eder bat ikusi ondorenian.

GAUR ELOSU'N

Izugarrizko zaletasuna dago gaur Elosu'ra igotzeko, abertzaliak eratutako jaiak dirala-ta, batez ere soka-tirakarako egundoko zaletasuna dago.

Emendik juango diran mutillak soka-tiraka ortarako, ondorengo auek dira: Añeiko Tomas eta Joakiñ; Uleko Gregorio, Etzezakortako Iñixio; Kortako Jose; Erratzu'ko Luis; Iango Bitoriano eta Etxe-beltzeko Gillermo.

OBETO

ALBIZTUR

«LA CONSTANCIA»REN ERRI ONTAKO ORDEZKARIARI

Lenago zuk jarri zenduenaz, amabost egun aurretik ARGIA ontan ezarri nuenari ill onen lenengo egun-igandez «La Constancia»n eman ziozun erantzuna, irakurri nuen. Entzun zuk ere nerea:

Nor zeran ez dakidan ori zirikatu eta neurtzeko gogorik ez det, zuk, zu beti zirikatzeko gogoa badedala, oker diozun arren.

«Abajo» ura ezarri bearrik zeukazunik ez nerizkiola eta Meza berri gaiaz niona, ez bait ziran zu zirikatu eta neurtzeagatik. Gaur ayek, esatea zail xamar zaidan bañan zentzudun edozeñek, noski, oso erraz ulertu litzakean beste zerbaitegatik ezarri nitun.

Goyaz'ko mitiñ-aurretik gauz asko entzun nitun eta ustez iturri onetik entzundako zerbait, geyegizko gabe, esan ere bai. Mitiñ artara ez joateko, ordea, ez nion esan iñori. Eta aizu, «La Constancia»ko ordezkaria, mitiñ ura izan zan egun eta gaueko... alakoxe gauzatxo batzuek badakizkit gero, ¿e?... eta geyegi toreatzen banazu...

«Margariten Batzokia», itz oyek ezarri nitun garai artan eta azkenengo zurea irakurri nuen arte, zure artan «Circulo de Margaritas» irakurri nuen ustea neukalako jarri nuen. Eta «Local» ere, nere ustez, Batzoki itzarekin, Gela-rekin bezin ongi esana dagon arren, tamalez, beren naia asmatu ez detan Margarita urguri oyek... ¡barkatuko al-dirate nere oben (pekatua)!

«Local de Margaritas»,
«¿Margariten gela?...»
¡Batayatu bezate
nai duten bezela!
Margaritak mintzerik,
iñoiz al-dedala...
ez nuke nai ta, berak,
berdin dezatela.

Esaten dirazu ere, beste orrelako askoren artean, (1) zure seme gazteenaren jayotz-berria, ez nuela ARGIA'n azaldu. Orixe txokatzen bazait ere, orrela diozunean, ala izango da noski zure seme orrena.

Oso gutxi eta gutxitan bederik jayotz-berria berandutxo jakin izan dedalako edo, bakarrenbat edo beste ARGIA'n azaldu gabe geratu izan zaizkidala, oroitzen naiz. Beragatik, zure ori ere ez azaltzean, izendatu detan zegati orixe izango zan bada. ¡Zuk ere barkatu eta zorionak, berandutxo bederik!

Eta ortaraño aurreratu zeran ezkero, urrutira joan gabe, azkenengo Epailla'n irugarren astean il ziran emengo iru ayetatik, «La Constancia»'n bat bakarrik azaldua, ¿zu izango zera noski? ¿Eta ala bazera, beste biyak zergatik aitatu ere ez zindun, esan nai al zidazuke?... Nik, al detan aldi guztietan oi bezela, ayek guztiak azaldu nitun ARGIA maite ontan!

Eta... aizu:

¿Emakumeengandik
nabillela igesi?...
¿Ordezkari orrek, noiz,
nazu ba ikusi?...
Zure esanagatik
zait ajola gutxi...
¡gezurrak gezurtia
jartzen du itxusi!

LUISTAR

(1) Ez. «Beste orrelako askoren artean», diozuna, ez da egia; gutxi, ez dira asko-ta.—Luistar.

URDALA
(ESTOMAGOA)
bizitzeak ematen digun alaitasunaren iturria da.

Zaindu zazu ondo
jan egokiak emanaz eta
Dr. Vicente'ren
Digestonikotik
kutxarekada batzuek artuaz.

Sendakaitegietan salgai.

BAR-RESTAURANT
Aurera
Ongi ta merke jaten da etxe ontan
Errioja'ko ardo bikañenak
Urbieta 12 — DONOSTIA
URRUTIZKIÑA 1-25-78

ALTZA

ERRIKO JAIAK

Gure zaindari Marzial deun eguna al-genuen aundien ospatu gendun. Baita Pedro deunaren eguna ere. Emengo kanpai ta su-ziri soñua.

MARIAREN ALABAK

Igandean, gaur, izango dute beren illeroko jaun-artzea, aurreko igandeko ordez; etorri al-dezuten guztiyok.

EZ BEARRA

Aurreko igandean Donosti aldean «txoke» bat egin da gogor zaurituta. elizakuak eginda dago Amuarko Jose. Baita ere zauritua dago «Urdiñene»ko Jose Mari. Lenbailen bizkortzea opa dizutet.

GURE ARTEAN

Gure artean udaraldia igarotzera etorrita arkitzen da Buenetxea'tar Blas bere sendiyakin.

ZUGAIZPE

Argi Done Laburra
BIGARREN ARGITARALDIA

Eleiz liburu merke-merkea, zazpi urte inguruko aurrentzat bereziki egiñ. Txukuna ta osoa. Aurtxoen azterketa berezia. Bi era meza entzuteko. Lenengo Jaunartzerako prestaera ta abesti xamur-xamurrak.

Ona liburu auen saneurriak:

Kartulinazko azaldunak	0,50
Kartone deritzan azalekoak	1
Tela deritzan azalekoak	1,15
Larru goxoko beltxak eta kolorezkoak	6,50
Ezurrezko azal apañekiko txurik	12.—
» » » »	14.—
» » » »	15.—
» » » »	17'50

Banaka nai dituzutenontzat Ricardo de Leizaola jaunak (Avenida, 32 Donestia) saltzen ditu ta askoka nai dituzutenontzat berriz

Teodoro Santa Cruz
BUEN PASTOR, 18, 5.º—DONOSTIA

ARETXABALETA

AUZOETAKO FESTA EGUNAK

Emen ere badijoaz erriko auzoak bakoitzak bere Zaindari deunaren festak egiñaz.

Egun gutxi barru, bi auzotan izan ditugu: San Juanak Aozaraza'n, San Pedroak Izurietan. Goizean Meza nagusi ederrak itzaldi bikañakin: aurten Aozaraza'n, Arenaz'tar Bonifazio apaiz jauna eta Izurietan Zaloña aita agurgarria izan dira sermolari. Gero eguardian, bazkari baño «bankete» izena obeto dagokien janaldiak. Izan ere, olako egunetan baserri kaskartxoenak ere «mayorazgo» aundiak dirudite. Eta azkenez arratsaldean, erromeri bizi ta alaiak.

Gure erriak dituan zortzi auzoetatik Izurieta da txikiena. Txikia izan arren berau degu onduen portatzen dana, eta gañerako auzoai urtero ikasbide bikaña ematen diena. Izan dute aurten ere beren erromeria, baña kristau euskaldunai dagokien bezelako erromeria: tanboliñaz, euskal dantza garbi ta azkatuaz. ¡Ederki ixutarrak, ederki!

Aozaraza ez da noski gure auzorik aundiena, baña bai «grabiena»: deitu ere «Madril txikito» deitzen zaio ta. Baña «Madril txikito» ontan, Aprika aundiko moru artean ikusten ez diran bezelakoak izaten dira urtero festa egunetan. Bai, Aprikan egondako batzuei entzunda dakigu, moru aiek itzal aundia izaten diotela beren apaiz, eleiz eta asaben gorputz illak lurperaturik dauden tokiai. Azatzatarrak, berriz, orixe ere ez. An ibili dira aurten ere, eleiz lurren, Kanpo-Santuko ate aurrean, euskal erromeri baño sorgin akelarre itxura geiago zutela, neska mutillak baltzio lotsagarrian. Auzo ontan esan diteke, ezin igaro dituztela San Juan festak beren Parroko jaunari naigabe bat eman gabe, eleiz eskubideak oinperatu gabe, zitalkeri arroa agertu gabe.

Gazteen zitalkeriaz gañera, beste sustrai bat du gaitz onek: erriko agintarien ardura ta laguntz eza.

Egia da, «Constitución» deritzan zori txarreko lege orrek, debekatu egiten duala bere 26'garren arauan, agintariak eleizari laguntza ematea. Baña laguntza ori, diru laguntza da, ez lege laguntza. Eta ala guziz ere, eta ori gutxi balitz bezela, gure Alkate jaunak ukatu egin dio Aozaraza'ko Parroko agurgarriari, onek «eskandalo» ori kentzeko, legez eta zuzenbidez eskatu zion laguntza. Eta ¿nola ukatu ere? Irakurri degu eskabideari emandako erantzuna, eta, egia esan, asko arritu gaitu eta asko illundu ere, bertan ainbeste aitzaki ta apaiz - batenganako ain itzal eta begirune gutxi ikusteak.

Ori goikoak egin ezkero, ez da arritzeko bekoak orrela ibiltzea. Artu bezate, beraz, bai batzuk eta bai besteak nere «protesta» bizi ta osoa.

ATXABALT

ARRONA

ASTEKO BERRIAK

—Pedro donearen egunean, iruillebeteroko umien Jauna artze aundiya izan zan. Beren otoitz eta abestiyakin elizkizun gozo ta xamurra egiten da.

—Jon donearen biyaramonian mendi aldian gabiltzala azken aldiz entzun genduan kuku txoriaren abots zolia. Urrungo urte arte, agur txori maitea.

—Iartza basarriko Kerejeta'tar Maria'ren irugarren deia, igandean egin zan. Entzun degunez Zarauz'ko gazte batekin.

—Joan dan igandean poxpoliñen eguna zala ta emendik ere ume talde ederra joan zan Donosti'ra.

—Maria'ren alaben illeroko elizkizuna igandean egin zan.

—Itayak txorroztuta dauzkagu, gariyak eltzen diranean ebakitzeko.

—Bada ederrik azaltzen da soroetan eta arto bakantziari ekin diyogu.

ZIOLAR

Eskerrikasko eskeintzagatik. Zure inguruan nitzan elizan ta gero ere ikusi ziñutan baña goratxo agur egiteko.—T.

AZPEITIA

GOIAZ'KO EUSKO JAIAK

Igandeko ARGIA'n esaten gendun nola gaur Goiaz'ko uri politean jai aberkoi bat egingo dala, bañan aberkide ta irakurle maiteok, aditzera ematen zaizute gerorako utzi dala jai ori egitea.

ILOSU'N

Gaur Azkoitiar abertzale jatorrak eratuta jai aberkoia egingo dute. Azpeitiarrak geienak an izango gera. Jaiki jaiki euskotarrak...

AGURTU DITUGUNAK

Gaztañaga, Leunda, Iturrioz, Rezola, Sukia ordiziarrak.

TXALINTXO

Dr. Arrieta
Sudur, eztarri ta belarrietako gaitz sendagillea
Prim kalea. 19. 4.ª
DONOSTIA

AZKOITIA

BOLA SARIKETA URRATEGI'N

Bertako gazteak eratuta lengo jai batian bola sariketa izan da Urrategi balleran. rOtarako bost duroko urria jarri zuten saritzat. Azkoiti, Azpeiti, Elgoibar eta Ositxun'ko berrogeitaka bolaririk onenak «probatu» ondorean, Narbaiza'tar Jose, «Zabaleta» bolari gazte ospatsua gelditu zan txapeldun.

Bola leku orretan jaiero egiten dira joku ikusgarriak eta iñork nai baluke etorri izango du zeñek jokatu.

Beso zuzen eta bikañak probatzeko lekurik iñun bada esan liteke badagoala Urrategi'n.

BASARRITAR BAT

La Casa Solar Vasca
ta
Una inquietud y cuatro preguntas

izeneko liburuak erosi nai dituztenak eskatu bezaizkiote ARGIA'ren ordezkariai. Lenengoaren saneurria 10 laurleko ta bigarrenarena 2 laurleko.
DONOSTIA

BEIZAMA

Kepa Donearen jaiak oso ondo igaro ditugu. Bi egun txarrak izan ziran, bañan irugarrengan jendia sayatu da oitura garbiyan dantzatzen. Txistulari diran Lizaso'tar Basili eta Garmendia'tar Bitori, Beizama'ko atabalero Altuna'tar Boni'ren soñuaren otsarekin.

«I TA NI»

BIDANIA

LABUR ETA NASTUAN

Joan zaizkigu Elustondo'tar Miren eta Iraola'tar Pelisa andereñoak. Biurtu dira udara aldia igarotzeko asmoz Agirre'tar Lukas, bere emazte ta alabakin, baita ere Muñoatarren sendi ezaguna.

—Azkoititik Leunda'tar Iñese andrea bere illobakin. Ongi etorria guztioi.

—Elizakuak artuta arkitzen da «Legarmendi» basetxeko andre zarra. Lenbailen osatzea opa diogu.

BASO-LORE

DEBA

JON DONEA

Igaro dan igandean, oitura dan bezela ospatu zan Jon Donea'ren eguna.

IDI DEMA

Igandean ospatu zan uri ontan. «Txerturi» baserriko idi bikañak, eta Bizkaiko Berriatuko bei bakarrak dema arri txikian. Lendabizi beiak jokatu zun iru giltze egiñaz, bigarren idia giltze ta erdi egiñaz. Bizkaitarrak garaille irten zuan, galdurik Itziartarrak.

Igaro dan igandean gure asteroko ARGIA maite ontan azaldu nun nere idatzian nolan Idiakez'tar Jon eldu zan Bermeo'ra asto gaiñean, abertzale zintzoa lez. Bada gauzak jarri biar omen dira bere mallan, argi eta garbi, Idiakeztar Jon JEL alderditik jaurtia dago aidanean. Ez jakiñagatik azaldu nuan izparringian ori eta azketsi.

BURNI BIDE

ELGOIBAR

EZKON DEIAK

Igandian asi ziran Iribarren'dar Prudenzio eta Zubiaurre'tar Sotera'ren ezkon deiak; berdin Idigoras'tar Jesus ta Kortaberria'tar Maria Josefa, «Urkiola Txiki»ko mutilla ta «Osoro Txiki»ko neskatilliarenak ta Kortaberria'tar Domingo «Osoro Txiki»ko mutilla «Olazabal»ko Ansola'tar Sotera'renak.

Zorionak danori.

ERIOTZA

Luzaro gaxorik egon ondoren Goiko Jaunak beregana deitu dio Gabilondo'tar Jose Ignazio, «Zuazti»ri. G. B.

Bat batetako eriotzak eraman digu gure artetik Kurriel'dar Telesforo, Altziarreneko Palaziuan bizi izan zan gizon ezaguna. G. B. Nere samin agurra bi sendieri.

Ainbeste denpora onetan ainbat zalaparta ta iskanbilla ibilli ondoren emengo «matarife» arazo onetan, txal iltzale bertako seme dan Gabilondotar Gregorio aukeratu dute. Basarritarren batzuek bildur izan biar dute, alegia, mutil au lenago emengo arakin batekin ikasten egon dalako oraiñ ere arakiñen alde jokatuko ote duan txal ta ganaduai kutxilluá zorrotz erabilliaz, baña basarritarrak, ez bildurrik izan, onek ezin lezake onelakorik egiñ, reglamentuan beian ibilli biar dualako. Bildur orregatik ez ba zuen txekor guri-gizenak kanpora bialdu, bestela agur gure agiñak, lenago ere aspaldian ola gabiltzata.

MIRENTXU

ERNANI

BERRI SAMIÑA

Igarotako goiz batean Londaiz ta Ubarretxena'ren «presan» arrantzan arkitzen zan Ortiz'tar Joseba eta bat batean «presa» ondoa labain egon nunbait eta bertan irrixtaratu eta botiak zeuzkan sarietan katiatu eta ito da gizajoa. Aurreko goiz batean ziran bere alde eleiz nagusian illetak eta notin asko urreratu zan. Laguntzen diot bere sendi naigabetuari atsekabian eta irakurle otoitz bat bere gogo alde.

GOTZAI JAUNAREN ETORRERA

Igarotako ostegun atsaldian gure Gotzai jauna etortzeko zala ta ia etxe guzietako leio eta balkoietan ikurrin edo zapiak jarri ondoren eleiz aldera juan giñan; bazan jendea, ugari, eta Gotzai jauna etorri zanean guziak eleizara eta ondoren Gotzai maite onek eman zuan sendotza edo konfirmazioa. Milla eun eta berrogei ta amar neska mutiko bildu ziran. Gure Jaungoikuak urte askoko bizia eman deiola Artzai maite oni. Alaxen opa diogu.

Uri ontako «Jesus Enea» basarrian dauzkate salgai bi txekor surisak urruxak dira iñork nai izan ezkero datorrela len esan detan basarrira.

MARIA'REN ALABA BAT

VASCONIA OPTICAL
(Merkiena saltzen duan etxea.)



	Ptas.
Nikelezko betaurrekoak	4,50
Urrezko betaurrekoak	18,—
Kristalik fiñenak	2,—
Kristal borobilduak, bakoitzak	5,—

San Jeronimo, 17 DONOSTIA
Udaletxeko atzean.

ERRENDERI

POXPOLIN JAI AUNDIA DONOSTIN

Oso atsegiña izan zaigu zezen enparantzan arratsaldian egindan jai aundia. Emendik 60'tik gora Poxpoliñ gaztetxuak izan dira.

URI ONTAKO JAYAK

Ai dira alderatzen Miren Matale emengo zaindari deunaren jaiak. Aurten igandearekin degula ta oso egoki izango litzake ibildeuna egitea. Erkal (republika) au etorri baño len ibildeun eder bat egiten zan, geroztik es degu izan. Miren Matale Deunaren irudia bertako elizatxotik Eliz nagusira ekarri oi zan oztetza aundiaz, eresbatz ta guzi. Errenderi'ko seme danon gogua izanik aurten bere egunean ibil-

Asmaketari erantzuteko oritxoa

1'gn. galdeera ... ...